

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, SESTAOKO LAGUN ARTEA KLUBAL AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA ONESTEN DUENA.**

---

**3/2016 esp.**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx(e)k, Sestaoko Lagun Artea Klubaren izenean eta haren ordezkartzan, hainbat errekurtsu aurkeztu zituen 2016ko otsailaren 3an eta martxoaren 16an, Euskadiko Pilota Federakundeak 2016ko urtarrilaren 21ean emandako ebazpenaren kontra.

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurreko kideek kargua utzi zuten 2016ko otsailaren 9an eta 2016ko maiatzaren 17an izendatu zituzten egungo kideak.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** 14/1998 Legearen 138 c) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsu hau aztertzeko eskumena.

**BIGARRENA.-** Arestian azaldu dugun legez, errekurtsua aurkeztu duen erakundeak, hurrenez hurren aurkeztutako errekurtsuak ikusita -otsailaren 3an eta martxoaren 16an-, Euskadiko Pilota Federakundeko presidentek egindako jakinarazitakoa zuhertasunez ezeztatze eskatu du. Honako hau dio jakinarazpen horrek:

"Bere garaian Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzako diziplina erakundeek zehapena ezarri zioten Lagun Artea Klubari eta Euskadiko Pilota Federakundeko diziplina erakundeen administrazio-isiltasunaren bidez ezetsi

zen. Kluba zigortuta dagoela ikusita eta zehapena betez, Euskadiko Federakunde honen lehiaketetatik kanpo geratuko da, diziplina erakunde eskudunek emandako ebazpenen batek beste gauza bat ez badio behintzat".

**HIRUGARRENA.-** Lehenik eta behin, 2016ko urtarrilaren 21eko jakinarazpen horren testuingurua azaldu beharra dago. Horretarako, beste espediente batean, 1/2016 espedientean zehazki, dauden dokumentuetara joko dugu. Izan ere, espedientea Euskadiko Federakundeari bidaltzeko eskatu zitzaion Bizkaiko Federakuntzari eta ez zen hala egin.

Beraz, honako hauek dauzkagu:

1.- Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzako diziplina-epaile bakarrak 2015eko otsailaren 20an emandako ebazpenaren harira (1/2014 diziplina-espedientea) aurkeztu zen auzipetutako errekurtsioa. Espediente horretan jasotakoaren arabera, beste gauza batzuen artean eta orain interesatzen zaigunaren arabera, honako hau erabaki zen: "(...) Lagun Artea Klubaren jardunbidearen ondorioz, aztertutako egitateak gertatu ziren garaian, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx klub horren ordezkaria zenean, egitate haiek Federakuntzak antolatutako lehiaketa batean parte hartzearen ondorio direla jakinda, Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzako kide modura dituen eskubideak urtebeterako kentzea eta Federakuntzaren lizentzia kentzeaerabaki da, Kirol Diziplinako Araudiaren 9. artikuluari jarraituz, eta beraz, denbora tarte horretan ezingo du parte hartu Federakuntzaren egutegi ofizialean ageri diren lehiaketetan, ebazpen honetan eskolen arteko lehiaketen inguruan eta Federakuntzako kirolarien bakarkako lehiaketen inguruan bildutako zehaztasunekin. **Ebazpen hau mugiezin bilakatzen den datatik aurrera aplikatuko da zehapena**".

2.- Ebazpen horren kontrako errekurtsioa aurkeztu zen "apelazio modura", Euskadiko Pilota Federakundeko Diziplina Batzordearen aurrean. Batzorde horrek honako hau erabaki zuen 2015eko martxoaren 24an egindako bileran: "Lehena.- **Errekurtsio-egileei ezarritako zehapena zuhurtasunez bertan behera uztea**, zehapen horrek konpon ezinezko kalteak eragin ditzakeelako.

Bigarrena.- Ahalik eta azkarren 1/2014 espedientearen kopia osoa bidaltzeko eskatzea Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzari".

**3.-** Errekurtso-egileak dioenez, Euskadiko Federakundeak jakinarazpen bat bidali zuen 2015eko uztailaren 28an, honako hau dioena: "Sasoi honetan ebazpena ematea ezinezkoa denez, apelazioaren gaineko ebazpena emateko epe zehatzik ez dagoela gogorarazi nahi dugu. Administrazioaren egintzak ebazteko epe orokorra (hiru hilabete) aplikatu behar dugu eta epe hori igaro denez, administrazioaren isiltasuna dagoela gogorarazi nahi genuke, kasu honetan ezezkoa adierazten duena. Horrenbestez, Bizkaiko Federakuntzak ez du ebazpenaren zain egon behar haren egutegia zehazteko".

4.- 2016ko urtarrilaren 21eko jakinarazpena, transkribatu duguna.

**LAUGARRENA.-** Errekurtso-egileak honako arrazoi hauek eman ditu ebazpena aurkaratzeko:

1.- Baliogabetasun formala: ez da ebazpena arrazoitu eta presidenteak emana da. Presidenteak ez du eskumenik diziplina-arlo horretan, hau da, argi eta garbi eskumenik ez duen erakunde batek eman du ebazpena.

2.- Baliogabetasun materiala: ebazpenak administrazio-isiltasuna ondo aplikatzearen aurka egiten du aurrez aurre; Kataluniako Auzitegi Nagusiaren epaia erabili du argudio modura (736/2001 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa), honako hau dioena: "ebazpen zigortzaile baten kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkezten denean, hori ebazteko hiru hilabeteko epea igaro izanak ez du esan nahi zehapena are mugiezinagoa denik edo betearazlea bilakatzen denik".

**BOSGARRENA.-** 2016ko urtarrilaren 21ean, orain aztertzen ari garen jakinarazpena egin zenean, zehapena ez zen betearazlea, bi arrazoi direla eta:

-Aurkeztutako errekurtsoa ez zen espresuki ebatzi eta beraz, ez zen ebazpenean xedatutakoa betetzeko epea ireki, erabakiak dioenaren arabera:

**"(...) Ebazpen hau mugiezin bilakatzen den datatik aurrera aplikatuko da zehapena".**

- Gainera, 2015eko martxoaren 24an **errekurtso-egileei ezarritako zehapena bertan behera utzi zen zuhurtasunagatik**, zehapen horrek konpon ezineko kalteak eragin zitzakeelako.

Horrenbestez, Euskadiko Federakundeak, bere kabuz eta aurkeztutako errekurtsoa espresuki ebatzi gabe, aurretik zegoen egoera juridikoa alda zezakeen edo ez zehaztea da kontua.

Eta erantzuna ezezkoa da.

Aldez aurretik esan beharra dago Batzorde honek ez duela ulertzen Euskadiko Pilota Federakundeak zuhurtasunezko zigorra ezarri izanaren arrazoia, erredundantea delako eta ez zelako beharrezkoa. Izan ere, ebazpen zigortzaileak berak ezarritakoaren arabera, **ezin zen epea ireki ebazpena mugiezin bilakatu arte**. Gainerakoan, aurreikuspen hori bat dator EAEko 30/1992 eta 2/1998 Legeetan xedatutakoarekin, izan ere, zehapen prozeduraren irizpideak ezartzean, honako hau diote 138.3 eta 43.5 artikuluek, hurrenez hurren: "ebazpena betearazlea izango da administrazio-bidea agortzen duenean" eta "Ebazpena betearazlea izango da administrazio-bidean mugiezin bilakatzen denean".

Printzipio hori errepikatu egiten da abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan, zehapen-ahalmena erabiltzeko prozeduraren Araudia onesten duen horretan, 21.2 artikuluan: "administrazio-bidea agortzen ez duten ebazpenak ez dira betearazleak izango errekurtso arrunta aurkeztu bada eta ebatzi ez bada edo aurkezteko epea igaro bada, ezer aurkeztu gabe".

Beste hitz batzuetan esanda, zehapena administrazio-bidea agortzen duenean bakarrik izango da betearazlea. Ondorioz, bitartean ez da beharrezkoa bertan behera uzteko eskatzea-

Kasu honetan, ebazpena ez da mugiezin bilakatu administrazio-bidean eta jakinarazpena egin duenak berak hala aitortu du, honako hau baitio 2016ko urtarrilaren 21eko jakinarazpenean: "(...) Euskadiko Federakunde honen lehiaketatik kanpo geratuko da, **diziplina erakunde eskudunek emandako ebazpen batek kontrakoa esan arte**".

Hain zuzen ere, oraindik beste instantzia batetara jo daiteke -gurea, KJEB honena- administrazio-bidea agortzeko [14/1998 Legearen 137. artikulua eta 310/2005 Dekretuaren 2. artikulua diotenez, "Euskal Autonomia Erkidegoan Kirol Justiziako Euskal Batzordea da kirol justiziaren arloko administrazio-erakunde gorena" eta "(...) azken buruan Batzorde horrek hartuko ditu bere eskumeneko kirol kontuen gaineko erabakiak"].

Azken finean, administrazio-isiltasunaren bidez ezesteak duen ondore bakarra interesdunei egoki den administrazioarekiko errekurtsua edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen uztea da. Beraz, kasu honetan zehapena ez da betearazlea eta ezin da hala izan, administrazio-bidean ebazpena mugiezin bilakatu arte.

Horren guztiaren ondorioz, KJEBk honako hau

## **ERABAKI DU**

Sestaoko Lagun Arteak Kluba Euskadiko Pilota Federakundeak 2016ko urtarrilaren 21ean emandako ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsua onestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko

auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 8a

José Luis Aguirre Arratibel

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA